


Gure fakultatean, ekainaren 2-an
hasiko dira azterketak.



Gure fakultatean, ekainaren **2-an**
hasiko dira azterketak.



Gure fakultatean, ekainaren *2an*
hasiko dira azterketak.




Zifraz idatzitako zenbaki kardinalak deklinatzean, ez da marrarik jarri behar zenbakiaren eta deklinabide-markaren artean, ezta zuriunerik utzi ere:

● Ekainaren **15etik 25era** bitartean egongo dira Australian Miren eta Jone.

■ *Ekainaren **15-etik 25-era** bitartean egongo dira Australian Miren eta Jone.

■ *Ekainaren **15 etik 25 era** bitartean egongo dira Australian Miren eta Jone.



- Bi zifrako zein zenbaki biderkatu behar dugu *2ren* bikoitzaz, 3 lortzeko?
- Era berean, 15 urtetik gorako gipuzkoarretatik % *41,2k* etxean bertan du Interneterako sarbidea.
- Laburpenak zein komunikazioen testuak *3,5eko* disketean bidali behar dira.
- Azpimarratu behar da *10en* berreketa biderkatzen duen zenbakia zenbaki osoa dela, edo, bestela, *1etik 9ra arteko* zenbaki hamartarra.



Berdin jokatu behar da zenbakia ordinala denean:

- 🌐 *5.etik 8.era* bitarteko artikuluek definitzen dituzte alor bakoitzeko eginkizunak.

EZ marrarik:

- **5.-etik 8.-era* bitarteko artikuluek definitzen dituzte alor bakoitzeko eginkizunak.

EZ zuriunerik:

- **5. etik 8. era* bitarteko artikuluek definitzen dituzte alor bakoitzeko eginkizunak.



- Kontratu gaizatzeko lekua: Lasarte-Oria, Atsobakar etorbideko *2.ean* kokatutako Zahar Egoitza.
- Musika Hizkuntzan sei maila izango dira, eta astean bi eskola-ordu emango dira maila guztietan, *6.ean* izan ezik: astean hiru izango dira eskola-orduak maila horretan.
- XIX. mendean ez zen halako buruhausterik izan; *XX.ean*, ordea, bai.

